

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

OÑATIKO UDALA

*Udalaren Herri Onurako Mendietan larreratzeak eta artzain-txabolen erabilera arautzeko udal ordenantza behin betiko izaeraz onartzea.*

Udalbatzak, 2022ko ekainaren 30eko bilkuraren erabakiz, Udalaren Herri Onurako Mendietan larreratzeak eta artzain-txabolen erabilera arautzeko udal ordenantza hasiera bateko izaeraz onartzea erabaki zuen. Aipaturiko erabakia 2022ko uztailaren 29ko dataz argitaratu zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (144 zk.) eta jendaurrean egon da 30 eguneko epean.

Jendaurreko erakustaldi publikoan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez denez, irmo eta behin betikotzat jotzen da Udal honen 2022 ekainaren 30eko osoko bilkurak hartutako hasierako erabakia.

Oñati, 2022ko azaroaren 10a.—Alkatea. (7086)

*Udalaren herri onurako mendietan larreratzeak eta artzain txabolen erabilera arautzeko Ordenantza.*

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da, Oñatiko Herri Onurako Mendietan (HOM) larreratzeak eta artzain txabolen erabilera arautzea. Larreratzea, mendi horrek izan ditzakeen ustiapenetako bat izanda, mendia zaindu eta hobetzearekin bat datorren eran egin behar da. Hain zuzen, Gipuzkoako Mendien 7/2006 Foru Arauari eta Oñatiko HOMetako Larreen Ordenazio Planetan ezarritakoari jarraituz, ingurumena babesteko goragoko mailako arauak araututakoari kalterik egin gabe.

2. artikulua. Baimenak.

Larreratze gaitan Oñatiko Udalak eman ditzakeen baimenak bertako udal barrutian dauden nekazaritzako ustialeku titularren ganaduarentzat izango dira. Mendiaren baliabide naturalak gutxitzeko arriskurik gabe, oraindik beste larreratze batzuk ere baimentzeko aukera badago, baimena eman lezake udal barrutitik kanpo dauden nekazaritzako ustialekuku titularrei.

II. TITULUA

LARRE APROBETXAMENTUEN PLANGINTZARAKO TRESNAK

3. artikulua. Araudia.

Herri Onurako Mendietako larreen aprobetxamendua Ordenazio Planek xedatutakoaren arabera egingo da, beti ere, Gipuzkoako Mendien 7/2006 Foru Arauak eta ingurumena babesteko goragoko mailako arauak araututakoari jarraituta.

AYUNTAMIENTO DE OÑATI

*Aprobación definitiva de la Ordenanza municipal reguladora del pastoreo y del uso de las chabolas de pastor en los Montes de Utilidad Pública Municipales.*

Por acuerdo del Pleno Municipal de fecha 30 de junio de 2022, se aprobó con carácter inicial la Ordenanza municipal reguladora del pastoreo y del uso de las chabolas de pastor en los Montes de Utilidad Pública Municipal. El acuerdo se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 29 de julio de 2022 (n.º 144) y ha estado expuesto al público durante un periodo de 30 días.

Transcurrido el periodo de exposición pública sin que se haya presentado reclamación ni sugerencia alguna a la misma, queda elevado a firme y definitivo el Acuerdo plenario inicial del 30 de junio de 2022 de este Ayuntamiento.

Oñati, a 10 de noviembre de 2022.—La alcaldesa. (7086)

*Ordenanza reguladora del pastoreo y del uso de las chabolas de pastor en los montes de utilidad pública municipales.*

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

La presente Ordenanza tiene por objeto regular el pastoreo y el uso de chabolas de pastor en los Montes de Utilidad Pública (MUP) de Oñati. El pastoreo, siendo una de las posibles explotaciones de los montes, debe realizarse de forma acorde con su conservación y mejora. En concreto, de acuerdo con lo establecido en la Norma Foral 7/2006 de Montes de Gipuzkoa y en los Planes de Ordenación de Pastos de los MUP de Oñati, sin perjuicio de lo regulado en la normativa superior de protección del medio ambiente.

Artículo 2. Autorizaciones.

Las autorizaciones que en materia de pastoreo pueda otorgar el Ayuntamiento de Oñati estarán destinadas al ganado de los titulares de explotaciones agrarias situadas en su término municipal. Sin riesgo de reducción de los recursos naturales del monte, en caso de existir la posibilidad de autorizar otros pastoreos, podrá otorgar autorizaciones a titulares de explotaciones agrarias situadas fuera del término municipal.

TÍTULO II

HERRAMIENTAS DE PLANIFICACIÓN DE APROVECHAMIENTOS DE PASTOS

Artículo 3. Normativa.

El aprovechamiento de los pastos de los Montes de Utilidad Pública se regirá por lo dispuesto en los Planes de Ordenación, en todo caso, de acuerdo con lo dispuesto por la Norma Foral 7/2006 de Montes de Gipuzkoa y la normativa superior de protección del medio ambiente.

#### 4. artikulua. Aprobetxamendu planak.

Oñatiko Udalak larreak ustiatzeko Urteko Aprobetxamendu Planen bidez zehatz ditzake zeintzuk diren larreratzeko tokiak eta denborak eta, era berean, espezieak larra dezaketan kantitatea ere. Ezarri eta arautu ditzake, era berean, aldi baterako edo iraunkorki aziendatzat sartzea debekatuta egongo diren larre tokiak, eta «hobetutzat» hartzen diren larre tokietarako baldintza espezifikoak jarri ere.

Nolanahi ere, ganadua larre-eremuetara igotzeko eta jaisteko egutegiak, honako aurreikuspen hauek bete beharko ditu: ganaduaren igoera urte bakoitzeko maiatzaren 1etik aurrera egingo da, hau da, denboraldiaren hasierarekin bat datorren egunetik aurrera, ganadua urteko otsailaren 28ra arte ibili ahalko da, hau da, denboraldia amaitzen den egunera arte.

Larreek izan behar duten gehieneko abere-zama kudeaketa-planaren eta arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera zehaztuko da, 2,0 UGM/ha-tik gorako galkarga puntualak saihesteko ahalegina egingo da. Helburua da urteko batez besteko abere-kargak hektareako UGM batera hurbiltzea eta beti 0,2 UGM/ha-tik gorakoak izatea.

#### 5. artikulua. Neguko geldialdia.

Neguko geldialdia organo kudeatzaileak ezartzen dituen baldintzei lotuta egongo da, eragindako eremuak eta larratze-aldiak zehatzu eta mugatuz. Horrela, larreen egoerak horretarako aukera ematen bada, larreetarako sarrera aurreratu ahal izango da eta, era berean, artzaintza-aldia luzatu.

Salbuespen gisa, neguko geldialdia kendu ahal izango da, eta maiatzaren hasierara arte luzatu ahal izango da zaldi-aziendari larratzeko aukera, larre-soilguneeetatik kanpo, berariaz zehaztutako zehaztu-eremuetan. Horretarako, mendi barruan negualdiko larratze-eremuak prestatuko dira martxotik apirilera bitartean, baldin eta eremu horien xedea eta bokazioa oztopatzen ez badute. Kasu horretan, abelburuen kopurua mugatua izango da, eta ja-beak larre-sasoitik bereizitako baimena beharko du.

Udalaren esku geratzen da, organo kudeatzailearekin bate-ra, baimenak ematea edo ukatzea, eta, aldekoa bada, abelburu kopurua eta larratzeko leku zehatza zehaztea.

### III. TITULUA

#### LARRERATZEA BAIMENTZEKO BALDINTZAK

#### 6. artikulua. Eskatzailearen baldintzak.

Herri Onurako Mendietako larreak ustiatzeko udal baimena eska dezakete I. tituluko 2. artikulua barruan egon eta zerga eta auzo betebeharretan eguneratuta badaude, pertsona fisiko eta nekazal izaerako elkarteak. Larreratzeko baimena eduki ahal izateko honako baldintzak bete beharko dira:

- Ordenantza fiskalak xedatutako kanona ordaindu beharko da.
- Abeltzainak behar adina denboraz eta agiri bidez bermatu beharko du ganadu horrentzako behar adina lursail eta/edo instalazio dituela, teknikoki eta ingurumenaren aldetik egokiak direnak, ustiaketa duen herrian kokatuak, eta aberea bere bazka-baliabideekin egotea eta elikatzea ahalbidetuko duena; bai mendian egoteko aldi baliogabeetan, bai larre-aprobetxamenduko geldialdietan, bai berrogeialdi sanitarioagatik, bai mendiaren egoera fisikoagatik, bai egonaldi hori ahalbidetzen ez duen beste edozein arazoerengatik.

#### 7. artikulua. Azienda motak.

Herri Onurako Mendietako larreetara igo daitezkeen azienda motak dira: ahari-ardiak, behor-zaldiak, zezen-behiak eta ahuntzakerrak dira, azken hauek beti ere kudeaketa plan batean oinarrituta. Erleak ere onartuko dira. Horiez gain, artzainei beren tx-

#### Artículo 4. Planes de aprovechamiento.

El Ayuntamiento de Oñati podrá determinar, a través de los Planes Anuales de Aprovechamiento de los pastos, los lugares y tiempos de pastoreo, así como la cantidad que la especie pueda pastar. Asimismo, podrá establecer y regular las zonas de pastos en las que se prohíba el acceso temporal o permanente del ganado, así como los requisitos específicos para las zonas de pastos que se consideren «mejoradas».

En todo caso, el calendario de subida y bajada del ganado a las zonas de pastos deberá cumplir las siguientes previsiones: la subida del ganado se realizará a partir del 1 de mayo de cada año, es decir, a partir del día que coincida con el inicio de la temporada, el ganado podrá pastar hasta el 28 de febrero del año correspondiente, fecha en que finaliza la temporada.

La carga ganadera máxima de los pastos se determinará de acuerdo con el plan de gestión y la normativa vigente en la materia. Se procurará evitar sobrecargas puntuales superiores a 2,0 UGM/ha. El objetivo es acercar las cargas ganaderas medias anuales a 1 UGM por hectárea y siempre superiores a 0,2 UGM/ha.

#### Artículo 5. Parada invernal.

La parada invernal estará sujeta a las condiciones que establezca el órgano gestor, determinando y acotando las zonas afectadas y los periodos de pastoreo. De esta forma, si el estado de los pastos lo permite, se podrá adelantar el acceso a los pastos y, a su vez, ampliar el periodo de pastoreo.

Excepcionalmente se podrá eliminar la parada invernal y prorrogar hasta principios de mayo la posibilidad de pastoreo de ganado equino, fuera de los claros de pasto, en las zonas arboladas expresamente determinadas. Para ello, se habilitarán dentro del monte las zonas de pastoreo de invierno entre los meses de marzo y abril, siempre que no interfieran con la finalidad y vocación de dichas zonas. En ese caso, el número de cabezas de ganado será limitado y la persona propietaria deberá contar con una autorización diferenciada de la temporada de pastos.

Queda a criterio del Ayuntamiento, junto con el órgano gestor, la concesión o denegación de las autorizaciones y, en caso de autorización, la determinación del número de cabezas de ganado y lugar concreto de pastoreo.

### TÍTULO III

#### CONDICIONES PARA LA AUTORIZACIÓN DEL PASTOREO

#### Artículo 6. Requisitos de la persona solicitante.

Podrán solicitar la autorización municipal para la explotación de los pastos de los Montes de Utilidad Pública las personas físicas y asociaciones agrarias comprendidas en el artículo 2 del título I que se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias y de barrio. Para poder obtener una autorización de pastoreo se deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Abonar el canon que establezca la ordenanza fiscal.
- El ganadero o la ganadera deberá garantizar que dispone de terrenos y/o instalaciones suficientes y adecuadas técnica y ambientalmente para dicho ganado, ubicados en la localidad donde se encuentra la explotación, que permitan su estancia y alimentación con sus propios medios forrajeros, tanto en períodos inhábiles de estancia en el monte, como en las paradas de aprovechamiento de pastos, por cuarentena sanitaria, por el estado físico del monte o por cualquier otra causa que no permita dicha estancia.

#### Artículo 7. Tipos de ganado.

Podrán subir a los pastos de los Montes de Utilidad Pública los siguientes tipos de ganado: carneros y ovejas, yeguas y caballos, toros y vacas, y cabras y machos cabríos, estos últimos siempre en base a un plan de gestión. También se admitirán abejas. Ade-

boletan bina txerrama, muturrekoarekin txaboletan kontrolatuz, eta bi dozena oilar-oilo onartuko zaizkie, beti ere beraien beharretarako.

#### 8. artikulua. Aziendaren xehetasunak.

Larreratze erregimenean eduki nahi den aziendak behar bezala identifikatuta eta Nekazaritza Ustialekuen Erregistroan izena emanda egon behar du eta, saneamenduari eta abereen mugimenduari buruz dagoen arautegia betetzeaz gain, Gipuzkoako lurralde historikoan, eta udalerrri mailan udal agintariak ezar ditzaireten betebeharreko guztiak bete beharko ditu.

Ganaduaren arrazari eta sexuari dagokienez, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Ardiak eta ahariak: latxa edo sasi-ardi.
- Behorak: haragitarako edozein arraza, pottokak barne.
- Zalduak: Euskal Herriko Mendiko Zaldia arraza bakarrik. Xehetasun hori egiaztatzeko, animaliaaren identifikazio-txartela aurkeztu beharko da, edo, bestela, baimena lortu ahal izateko udalerekin aurkeztu beharreko albatariaren ziurtagiria.
- Ez da gainontzeko zaldirik onartuko, ez pottokarik ez diren ponirik, ez zaldi zikiraturik, ez edozein arrazatako ferraturik.
- Ez da onartuko zikiratutako zekorrik.
- Ez da txerri-azientaririk onartuko, 6. artikuluan xedatutakoa izan ezik.
- Ahuntz-azienda baimentzeko, ezinbestekoa izango da kudeaketa-plan bat onartzea.
- Zezenei dagokienez, arraza hutseko zezenak edo liburu genealogikoa dutenak bakarrik onartuko dira.
- Ez da astorik, mandorik, arrik edo emerik onartuko, kargasuetarako berariazko baimena eman ezean.
- Zaldi-azientaren «quincenoak» baimendu ahal izango dira, betiere ustiatzeko amek sortutako abereak badira.
- Mendi publikoetan, ahariak ezin izango dira mendian libre utzi dagokion urteko ekainaren 10a baino lehen.
- Salerostera bideratutako ganadu pasadizokoaren larratzea ez da onartuko.

#### 9. artikulua. Aloabel elkarteak.

Herri Onurako Mendietako larreak ustiatzeko baimenduek Aloabel (Aloña Mendiko Abeltzale Elkarteak) elkarteko kide izan beharko da eta modu aktiboan parte hartu beharko du elkarteak antolatuko ekintza eta egitasmoetan, besteak beste, urteko bilan eta Udalak antolatutako deialdietan.

#### 10. artikulua. Baimenak indargabetzea.

Ordenantza honek aipatzen dituen baimenak indargabetuta gera daitezke, emateko bete behar ziren baldintzak ez badira bete, zigorrak ere ezar daitezkeelarik, beharra izanez gero.

### IV. TITULUA

#### LARRERATZEA BAIMENTZEKO PROZEDURA

##### 11. artikulua. Urteko deialdia.

Ordenantza honek aipatzen dituen larreratzeko eskaerak aurreko urteko larreratze deialdiak xedatutako epe-muga aurretik egin behar dira Udala Erregistroan. Aipatu urteko larreratze deialdia eskaerak egiteko epe-muga baino 30 egun aurretik egingo du Udalak eta Udaleko web orrialdean argitaratzeaz gain Aloabel Elkarteari bidaliko dio. Deialdi horretan, eskaerak aurkezteko epe-mugaz gain, bestelako betebeharrak zehaztu ahal dira, hala nola: osasun baldintzak, ganaduaren kontrolerako lepoak erabilerak, etab.

más, a los pastores y pastoras se les permitirá tener en sus chabolas dos cerdas madres, controladas con bozal en las chabolas, y dos docenas de gallinas-gallos, siempre para sus necesidades.

#### Artículo 8. Detalles del ganado.

El ganado que se desee mantener en régimen de pastoreo deberá estar debidamente identificado e inscrito en el Registro de Explotaciones Agrarias y cumplir, además de la normativa existente en materia de saneamiento y movimiento de ganado en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, cuantas obligaciones puedan establecerse a nivel municipal por las autoridades municipales.

En cuanto a la raza y sexo del ganado, se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:

- Ovejas y carneros: latxa o sasi ardi.
- Yeguas: cualquier raza para carne, incluidas las pottokas.
- Caballos: exclusivamente la raza de Caballo de Monte del País Vasco. Este extremo se acreditará mediante la tarjeta de identificación del animal o certificado veterinario a presentar en el Ayuntamiento correspondiente para la obtención de la autorización.
- No se admitirá otro tipo de caballo, ni los ponis que no sean pottokas, ni los caballos castrados, ni los herrados de cualquier raza.
- No se admitirán terneros castrados.
- No se admitirá ganado porcino, salvo lo dispuesto en el artículo 6.
- Para la autorización del ganado caprino será necesaria la aprobación de un plan de gestión.
- En el caso de los toros, sólo se admitirán los de raza pura o con libro genealógico.
- No se admitirán burros ni mulos, machos o hembras, salvo autorización expresa en caso de carga.
- Podrán autorizarse potros «quincenos», siempre que se trate de crías de ganado de la explotación.
- En los montes públicos, los carneros no podrán quedar libres en el monte antes del 10 de junio del año correspondiente.
- No se admitirá el pastoreo del ganado de tránsito destinado a la compraventa.

#### Artículo 9. Asociación Aloabel.

Las personas autorizadas para la explotación de pastos de los Montes de Utilidad Pública deberán pertenecer a la asociación Aloabel (Aloña Mendiko Abeltzale Elkarteak) y participar activamente en las actividades y proyectos organizados por la asociación, entre otros, en la reunión anual y en las convocatorias organizadas por el Ayuntamiento.

#### Artículo 10. Revocación de autorizaciones.

Las autorizaciones a que se refiere la presente Ordenanza podrán ser revocadas por incumplimiento de las condiciones que determinaron su otorgamiento, sin perjuicio de las sanciones que, en su caso, procedan.

### TÍTULO IV

#### PROCEDIMIENTO DE AUTORIZACIÓN DEL PASTOREO

##### Artículo 11. Convocatoria anual.

Las solicitudes de pastoreo a las que se refiere la presente Ordenanza deberán realizarse en el Registro Municipal con anterioridad a la fecha límite establecida en la convocatoria de pastoreo del año anterior. La convocatoria de pastoreo del citado año se realizará por el Ayuntamiento 30 días antes de la fecha límite de presentación de solicitudes y se publicará en la página web del Ayuntamiento y se remitirá a la asociación Aloabel. En dicha convocatoria, además del plazo límite de presentación de solicitudes, se podrán especificar otros requisitos como: condiciones sanitarias, uso de collares para el control del ganado, etc.

Eskaeretan adierazi behar da, espezie bakoitzeko zenbat buru larreratu nahi den. Eskaera orriarekin batera, abere bakoitzaren jabearen eta identitatearen ziurtagiri egiaztagarriak aurkeztu behar dira eta eskatu ahal diren osasun betebeharrak betetzen direla egiaztatzen ere bai.

**12. artikulua. Larreratze baimenak.**

Eskaerak, egin beharreko kontsiderazio, erregulazio eta/edo mugekin batera, larreak ustiatzeko Urteko Aprobetxamendu Planen sartu eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi Zuzendaritzara bidali behar dira, onar ditzan. Foru Aldundiak onartutako zerrendan eskaera bakoitzaren behin-behineko ebazpena jakinaraziko dio Udalari. Udalak eskaera hori behin betikoa egingo du, eskaerazileak ezarritako dauden udal tasak (baimendutako abereen kopuruari bakarrik dagozkionak) ordaintzen dituztenean eta osasun baldintza egokietan dagoela ziurtatzen duen albaitariaren agiria aurkezten duenean. Hori guztia bete eta gero, behin betiko baimena emango zaio eskaerazileari.

**13. artikulua. Larreratze baimenaren iraupena.**

Oñatiko Udalak emandako larreratzeko baimenak urtebeteko izango dira, hau da, eskaera aurkeztutako egunaren ondoko urte natural osorako. Baimena ematen den kasuetan zigilu edo identifikatzeko udal adierazle (lepokoa eta krotala) batez identifikatu behar dira abereak.

**14. artikulua. Kanona.**

Sail horietan abeltzainek izango duten ustiapenaren ordain gisa, abelburuko (edo artaldeko) abeltzainek ordaindu behar dituzten gutxienezko kuotak jasoko ditu Udalak bere ordenantza fiskalean, abeltzainei aitortzen zaizkien ustiaketan ordaintzen.

Udalak jasoko dituen kuotak larre horien hobekuntzarako erabiliko ditu.

V. TITULUA

LARREEN USTIAKETA

**15. artikulua. Larre aprobetxamenduaren oinarriak.**

Oñatiko Herri Onurako Mendietako larreen aprobetxamendua horien kontserbazio eta hobekuntzara egokituko da, une oro dauden larreak zentzuz antolatzen eta zabaltzen saiatuz, basomasari eta landaretzari kalterik egin gabe.

**16. artikulua. Gutxienezko egonaldia.**

Irizpide orokor bezala, ganadua gutxienez 4 hilabetez egon behar da mendian, justifikatutako kasuetan izan ezik. Horrela ez bada, hurrengo bi urteetan mendira ganadua larreratzeko eskubidea galduko litzateke.

VI. TITULUA

ARTZAIN-TXABOLEN ERABILERA ETA LAGAPENA

**17. artikulua. Irizpide orokorra.**

Irizpide orokor bezala, Herri Onurako Mendietan dauden txabolak artzaintza jarduerari lotutako erabilera izango dira soilik. Txabolak bestelako erabilera egin ahal izateko, jabetza publiko ondarearen erabilera pribatua den heinean, interes publiko edo sozial batera lotuta egon behar dira.

**18. artikulua. Gutxienezko azienda.**

Artzain batek txabola baten kontzesio eskubidea izateko, gutxienez 60 ardiko artaldearen jabe izan eta HOMETako larreetan larreratu behar ditu.

En las solicitudes se indicará el número de cabezas de ganado de cada especie que se pretende llevar a pastar. El impreso de solicitud deberá ir acompañado de certificados acreditativos de la propiedad e identidad de cada animal y del cumplimiento de los requisitos sanitarios exigibles.

**Artículo 12. Autorizaciones de pastoreo.**

Las solicitudes, junto con las consideraciones, regulaciones y/o limitaciones a realizar, deberán incluirse en los Planes Anuales de Aprovechamiento de los pastos y remitirse a la Dirección de Montes de la Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación. La Diputación Foral notificará al Ayuntamiento la resolución provisional de cada solicitud en la lista aprobada. El Ayuntamiento otorgará carácter definitivo a la solicitud, una vez que la persona solicitante abone las tasas municipales establecidas (exclusivamente las correspondientes al número de animales autorizados) y presente el certificado veterinario que acredite que se encuentra en las debidas condiciones sanitarias. Tras cumplir con todo lo anterior, se concederá autorización definitiva a la persona solicitante.

**Artículo 13. Duración de la autorización de pastoreo.**

Las autorizaciones de pastoreo concedidas por el Ayuntamiento de Oñati tendrán una duración de un año, es decir, todo el año natural siguiente a la fecha de presentación de la solicitud. En los casos en los que se conceda la autorización se identificarán los animales con un sello o indicador municipal identificativo (collar y crotal).

**Artículo 14. Canon.**

Como contrapartida a la explotación por parte de los ganaderos y las ganaderas en dichos terrenos, el Ayuntamiento incluirá en su ordenanza fiscal las cuotas mínimas a satisfacer por cada cabeza de ganado (o rebaño) como compensación de las explotaciones reconocidas a los ganaderos y ganaderas.

Las cuotas que perciba el Ayuntamiento se destinarán a la mejora de esos pastos.

TÍTULO V

EXPLOTACIÓN DE PASTOS

**Artículo 15. Bases del aprovechamiento de pastos.**

El aprovechamiento de los pastos de los Montes de Utilidad Pública de Oñati se adaptará a la conservación y mejora de los mismos, procurando en todo momento una ordenación y ampliación racional de los pastos existentes, sin afectar a la masa forestal ni a la vegetación.

**Artículo 16. Estancia mínima.**

Como criterio general, el ganado deberá permanecer en el monte un mínimo de 4 meses, salvo casos justificados. De no ser así, en los dos años siguientes se perdería el derecho de pastoreo del ganado en el monte.

TÍTULO VI

USO Y CESIÓN DE LAS CHABOLAS DE PASTOR

**Artículo 17. Criterio general.**

Como criterio general, las chabolas existentes en los Montes de Utilidad Pública se destinarán exclusivamente al uso vinculado a la actividad de pastoreo. Cualquier otro uso alternativo de las chabolas, al tratarse de un uso privado de los bienes de dominio público, deberá estar vinculado a un interés público o social.

**Artículo 18. Número mínimo de ganado.**

Para que una persona dedicada al pastoreo tenga derecho a la concesión de una chabola deberá ser propietaria de un rebaño de al menos 60 ovejas que pasten en los pastos de los MUP.

**19. artikulua. Araudia.**

Artzain-txabolen kontzesioa Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 Errege Dekretuak eta 33/2003 Administrazio Publikoen Ondare Legeak (APOL) xedatutakoaren arabera egingo da.

Bide horretan, Udalak egoki deritzon txabolen kontzesioa emateko prozedura abian jarriko du indarrean dagoen araudiak xedatutako prozedura jarraituta.

**20. artikulua. Txabola ingurua.**

Txabolak kontzesioan dituzten artzainei txabola inguruan lur-sail eremu bat utzi ahalko zaio, eskorta, baratza, ustiaketarako zuhaitzia eta oilategi edo antzekoak jarri ahal izateko.

**21. artikulua. Iraupena.**

Kontzesioak 5 urte iraungo du gehienez, nolana, kontzesio-rako deialdiak ezarritako baldintzak betez gero, beste 5 urtez luzatzeko aukera egongo da. Bi urtean behin kontzesioa berrikusiko da, baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko. Txabolen inbentarioa egingo da bai barruko eta kanpoko altzariak, instalakuntzak, eranskinak eta abar.

**22. artikulua. Kontserbazioa.**

Artzainak txabolaren lagapena duen bitartean, mantenu arruntaren ardura izango du, mantenu arruntetik kanpo gelditzen diren konponketak edo inbertsioak Udalaren ardura izango dira. Mantenu arrunta bezala ulertuko dira erabilerarekin zerikusia duten eraberritze edo birregokitze-lanak, besteak beste: erreteila, fatxada pintatzea, instalazioen mantenimendua, etab. Mantenu arruntetik kanpo ulertuko dira eraikinaren egonkortasunarentzat ezinbestekoak diren lanak, adibidez, zimenduak, karga-hormak eta estruktura horizontal edo bertikala gogortzea. Halaber, mantenu arruntetik kanpo ulertuko dira eraikinaren erabilerarekin zerikusi zuzena izan gabe, bizigarritasuna hobetzen duten hobekuntza-lanak: fatxadak isolatzea, egoera txarrean dauden leihoak aldatzea eta antzekoak.

**23. artikulua. Inguruko mantenua.**

Artzainak txabola eta inguruak garbi eduki eta mantendu beharko ditu, zaborrak herrira ekarri edo horretarako ezarritako tokietan utzi beharko dituelarik.

**24. artikulua.**

Kontzesioa pertsonala izango da, beraz ez da onartuko inolako lagapen edo errendamendurik.

**25. artikulua.**

Udalak berreskuratze eskubidea edozein unetan erabil ahalko du.

VII. TITULUA

HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

**26. artikulua. Arau husteak.**

Erantzukizun administratiboa izango dute ondorengo atale-tan sailkatutako hausteak egiten dituztenek:

1. Hauste arinak:

- a) Ustiaketa jardueretan esleituriko lursailetik kanpo aritzea.
- b) Txabolaren itxuraren barruko aldea behar bezain garbi eta txukun ez mantentzea, pilatutako zaborrak, artileak, etab. ez jaistea.
- c) Txabolarako ezarri den irizpidearen orde, besteren baztuz erabiltzea edo ezarritakoa modu desegokian erabiltzea.
- d) Pistetatik kanpo kotxe edo motorrarekin ibiltzea.

**Artículo 19. Normativa.**

La concesión de chabolas de pastor se registrará por lo dispuesto en el Real Decreto 1372/1986, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, y en la Ley 33/2003 de Patrimonio de las Administraciones Públicas (LPAP).

En este sentido, el Ayuntamiento iniciará, cuando lo estime oportuno, el procedimiento para el otorgamiento de la concesión de chabolas siguiendo el procedimiento establecido en la normativa vigente.

**Artículo 20. Zona de la chabola.**

A los pastores que tengan chabolas en concesión se les podrá ceder en la zona de la chabola un terreno para destinarlo a aprisco, huerta, arbolado para explotación y gallinero o similar.

**Artículo 21. Duración.**

La duración máxima de la concesión será de 5 años, prorrogables por otros 5 si se cumplen las condiciones establecidas en la convocatoria de la concesión. Cada dos años se revisará la concesión para asegurar el cumplimiento de los requisitos. Se realizará un inventario de las chabolas, así como del mobiliario interior y exterior, instalaciones, anexos, etc.

**Artículo 22. Conservación.**

Mientras el pastor o pastora tenga la cesión de la chabola, se encargará de su mantenimiento ordinario, siendo responsabilidad del Ayuntamiento las reparaciones o inversiones que queden fuera de los trabajos ordinarios de mantenimiento. Se entenderá por mantenimiento ordinario las obras de reforma o acondicionamiento relacionadas con el uso, tales como retejado, pintado de fachada, mantenimiento de instalaciones, etc. Se entenderán fuera de los mantenimientos ordinarios las obras indispensables para la estabilidad del edificio, tales como cimentaciones, muros de carga y afianzamiento de la estructura horizontal o vertical. Asimismo, se entenderán fuera de los mantenimientos ordinarios las obras de mejora que, sin estar directamente relacionadas con el uso del edificio, mejoren su habitabilidad: aislamiento de fachadas, sustitución de ventanas en mal estado, etc.

**Artículo 23. Mantenimiento de la zona.**

El pastor o pastora deberá tener y mantener limpia la chabola y sus alrededores, trasladando las basuras al pueblo o depositándolas en los lugares establecidos al efecto.

**Artículo 24.**

La concesión será personal, por lo que no se admitirá cesión o arrendamiento alguno.

**Artículo 25.**

El Ayuntamiento podrá ejercer el derecho de recuperación en cualquier momento.

TÍTULO VII

INFRACCIONES Y SANCIONES

**Artículo 26. Infracciones.**

Incurrirán en responsabilidad administrativa quienes cometan infracciones como las tipificadas a continuación:

1. Infracciones leves:

- a) Dedicarse a actividades de explotación fuera de la parcela adjudicada.
- b) No mantener la zona interior del cerramiento de la chabola suficientemente limpia y ordenada, no bajar basuras acumuladas, lana, etc.
- c) Sustituir por otros el criterio establecido para la chabola o hacer un uso inadecuado del mismo.
- d) Circular fuera de pistas con coche o moto.

e) Orokorri, ordenantza honetan ezarri diren, eta funtsezko ziurtagiri ez duten betebeharrak ez betetzea.

f) Aurretik baimenik jaso ez duten egokitze edo berrikuntza lanak egitea.

### 2. Hauste larriak:

Arau-hauste larriak izango dira:

a) Baimenik gabe, edota bertan jasotako baldintzak bete gabe, azienda larreratzea.

b) Beste abeltzainen azienda kaltetzea.

c) Zaintza zerbitzukoek emandako aginduak ez betetzea.

d) Funtsezko betebeharrak ez betetzea.

e) Kontzesioan emandako ondasun, eta horri dagozkion eskubideak behar bezala ez erabiltzea edo baimenik gabe erabiltzea, baldin eta erabilera hori arau-hauste arinen artean ez badago.

f) Esleitutako kontzesioa partekatu edo uztea.

g) Kontzesioa edo horri dagozkion eskubideak, berea ez den ganaduaren gozameneko erabiltzea, Udalak horretarako baimenik eman ez duen kasuetan.

h) Aziendaren osasun zainketa tratamenduetan erabilitako ontziak eta hondarrak ez biltzea.

i) Ezarritako kanona ez ordaintzea.

j) Arau-hauste arinak bi aldiz egitea.

### 3. Hauste oso larriak:

Arau-hauste oso larriak izango dira:

a) Urratze-espeditzea dela bide, Udalak ezarritako zigorrak ez betetzea.

b) Arau-hauste larriak bi alditan egitea.

### 27. artikulua. Prozedura.

Ordenantza aginduekiko hausteak zigortzeko prozedurari hasiera emango dio ofizioz edo partikularrek egindako salaketaren ondorioz eta bertan, urratzaileak hitz egiteko eskubidea izango du. Arau-hauste larriak eta oso larriak administrazio jardunbidean ezarrita dagoen moduan zigortuko dira.

### 28. artikulua. Zigorrak.

Ondorengo isun hauekin zigortuko dira:

– Arau-hauste arinei 60 eta 150 euro arteko zigorra ezarri ahal izango zaie.

– Arau hauste larriei 150 eta 600 euro arteko zigorra ezarri ahal izango zaie eta kontzesioa, indarrak gabe bertan behera utzi ahal izango da, 2 hilabetez gehienez.

– Arau hauste oso larriei bost urterako kontzesioa kendu ahal izango zaie eta 600-1.500 € arteko isuna ezarri. Behin zigorra betetakoan eskubide guztiak berreskuratu ahal izango ditu.

Lehen aurreikusitako isunez aparte, arau haustea Udalarri larreetan edo txaboletan eragindako kalteen eta matxurengatik erabiltzaileei sortutako istripu edo bestelako eraginaren zerbatekoaren kalte-ordaina emango dio.

### Xedapen gehigarriak.

Baso Administrazioak Herri Onurako Mendietan bere gain hartuta dituen aurreikuspen, ikuskaritza eta zehapen egitekoen kalterik gabe, Ordenantza honetan xedatutakoa bete dadila zainduko du Udalak, salaketak eginez eta Baso Administrazioari horiek jakinaraziz.

### Amaierako xedapena.

Ordenantza hau, behin betiko onarpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoko egunean jarriko da indarrean.

e) En general, el incumplimiento de las obligaciones de carácter no esencial establecidas en la presente Ordenanza.

f) La realización de obras de acondicionamiento o reforma que no hayan sido previamente autorizadas.

### 2. Infracciones graves:

Tendrán la consideración de infracciones graves:

a) El pastoreo de ganado sin autorización o el incumplimiento de las condiciones contenidas en la misma.

b) Dañar el ganado de otros ganaderos.

c) El incumplimiento de las órdenes del servicio de vigilancia.

d) El incumplimiento de las obligaciones esenciales.

e) La utilización indebida o no autorizada de los bienes y derechos cedidos en la concesión, siempre que tal utilización no constituya infracción leve.

f) Compartir o ceder la concesión adjudicada.

g) Utilizar la concesión o los derechos que le correspondan para el disfrute del ganado que no sea de su propiedad, salvo autorización municipal.

h) No recoger los envases y restos utilizados en los tratamientos de vigilancia sanitaria del ganado.

i) El impago del canon establecido.

j) La reincidencia en la comisión de infracciones leves.

### 3. Infracciones muy graves:

Tendrán la consideración de infracciones muy graves:

a) El incumplimiento de las sanciones impuestas por el Ayuntamiento en virtud de expediente de infracción.

b) La reincidencia en la comisión de infracciones graves.

### Artículo 27. Procedimiento.

El procedimiento sancionador por infracción de las Ordenanzas se incoará de oficio o como consecuencia de denuncia formulada por particulares, en el que el infractor tendrá voz. Las infracciones graves y muy graves serán sancionadas conforme a lo establecido en el procedimiento administrativo.

### Artículo 28. Sanciones.

Se castigarán con las siguientes multas:

– Las infracciones leves podrán ser sancionadas con multa de 60 a 150 euros.

– Las infracciones graves podrán ser sancionadas con multas de 150 a 600 euros y la concesión podrá ser suspendida por un plazo máximo de 2 meses.

– Las infracciones muy graves podrán ser objeto de revocación de la concesión por un plazo de cinco años y ser sancionadas con una multa de 600 a 1.500 €. Una vez cumplida la sanción podrá recuperar todos sus derechos.

Además de las multas previstas anteriormente, la persona infractora indemnizará al Ayuntamiento por el importe de los accidentes u otro tipo de afecciones provocados a las personas usuarias como consecuencia de las averías y desperfectos causados en los pastos o chabolas.

### Disposición adicional.

Sin perjuicio de las previsiones, inspecciones y sanciones que tenga asumidas la Administración Forestal en los Montes de Utilidad Pública, el Ayuntamiento velará por el cumplimiento de lo dispuesto en esta Ordenanza, formulando denuncias y comunicándolas a la Administración Forestal.

### Disposición final.

La presente Ordenanza entrará en vigor el día siguiente al de la publicación de la aprobación definitiva en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.